# Pribatuen Iragarkiak

## ONDARROA LANTZEN, SA

LEHIAKETA, babes ofizialeko 48 etxebizitza eta 32 etxebizitza libre dituen Ondarroako Kamiñazpiko bloke batean egin beharreko hormigoizko lanak eta igeltseritza-lanak kontratatzeko dena. 5439

IRAGARKIA, Ondarroako udalerrian dagoen Aieriko egoitza-aldearen Barne Eraldaketarako Plan Berezia, Urbanizazio Proiektua eta Birpartzelatze Proiektua idazteko lehiaketa arautuko duen baldintza-plegua onartzeari buruzkoa. 5439

# Anuncios Particulares

## ONDARROA LANTZEN S.A.

CONCURSO para la contratación de las obras de hormigón y albañilería de un bloque de 48 viviendas de VPO y 32 viviendas libres en Kamiñazpi (Ondarroa). 5439

ANUNCIO relativo a la aprobación del pliego de condiciones que regulará el concurso para la redacción del P.E.R.I. (Plan Especial de Reforma Interior), Proyecto de Urbanización y Proyecto de Reparcelación del área Residencial de AIERI del Municipio de Ondarroa. 5439

# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 1621

EBAZPENA, 2005eko urtarrilaren 10ekoa, giza baliabideen zuzendariarena, lizentziak eta baimenak emateko prozedura eta gozatzeko modua ezartzeari buruzkoa.

Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzen duen 19/2003 Lege Organikoa indarrean sartu ondoren, 505.1 artikuluari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio bere lurralde-eremuan diharduten Justizia Administrazioko langileentzako lizentziak eta baimenak emateko prozedura eta gozatzeko modua ezarriko dituzten arauak egitea.

Adierazitako Lege Organikoren 452.3 artikuluak, idazkari judizialen funtzioen artean, Autonomia Erkidegoak baliabide pertsonalen eta materialen arloan dituen funtzioen eraginkortasunerako Autonomia Erkidego horretako organo eskudunarekiko lankidetza ezartzen du. Lankidetza horren inguruan, gobernu-idazkariei zuzendutako Komunikazioa egin zuen Justizia Ministerioak 2004ko urtarrilaren 26an; bertan, lankidetza horren hainbat alderdi zehaztuta daude, hala nola gaixotasun-egoeren jakinarazpena (dagozkien lizentziak emateko) eta titularren eta bitartekoen baimen eta lizentzia-eskaerena. Idazkari judizialek, halaber, oniritzia eman behar die Bulego Judizialeko langileak lanpostura agertu ez izanari lotutako alderdi guztiei.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 1621

RESOLUCIÓN de 10 de enero de 2005, del Director de Recursos Humanos sobre forma y disfrute de licencias y permisos.

Tras la entrada en vigor de la Ley Orgánica 19/2003 de modificación de la Ley Orgánica del Poder Judicial, en virtud del artículo 505.1, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco dictar las normas que establezcan la forma de disfrute y el procedimiento de concesión de licencias y permisos al personal al servicio de la Administración de Justicia destinado en el ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma.

El artículo 452.3 de la citada Ley Orgánica establece dentro de las funciones de los Secretarios Judiciales, la colaboración con el órgano competente de la Comunidad Autónoma para la efectividad de las funciones que éstas ostentan en materia de medios personales y materiales. Tal colaboración ha sido objeto de Comunicación del Ministerio de Justicia de fecha 26 de enero de 2004 dirigida a los Secretarios/as de Gobierno en la que se concretan aspectos de dicha colaboración, entre ellos la comunicación de las situaciones de enfermedad a efectos de concesión de las correspondientes licencias, de las solicitudes de permisos y licencias de titulares e interinos, asimismo corresponde a los Secretarios Judiciales dar su visto bueno a todos los aspectos que se relacionen con la ausencia del personal de la Oficina Judicial de su puesto de trabajo.

Ebazpen honek lizentziak eta baimenak emateko prozedurak eta gozatzeko moduak behar duten gutxieneko antolamendua ezartzea du helburu, eta irizpide orokorrak eta, lizentziaren edo baimenaren izaerak eskatzen duenean, berariazko alderdiak ezartzen ditu.

Ebazpen hau aldez aurretik negoziatu eta adostu da sindikatuekin, negoziazio-mahaiaren barruan, eta lanbaldintzei buruzko etorkizuneko akordio orokor baten osagai gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Sailak sortu, kendu eta aldatzen dituen Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuari jarraiki, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, ondokoa ebatzi dut:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten Justizia Administrazioko langileek, Auzitegiko Medikuen Kidegokoak, Laborategiko Laguntzaileen Kidegokoak, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegokoak, Izapide Prozesal eta Administratiboko Kidegokoak eta Laguntza Judizialeko Kidegokoak diren edota abenduaren 26ko 19/2003 Lege Organikoaren Laugarren Xedapen Gehigarriak finkatutako iraungi beharreko eskaletan barne hartuta dauden funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzen dituztenean, Ebazpen honetan kontuan hartutako baldintzetan izango dute lizentziak jasotzeko eskubidea.

2.– Baimenak, era berean, Ebazpen honetan kontuan hartutako baldintzetan eman ahal izango dira.

3.– Lizentziak eta baimenak emateko ezarritako egunak emakida horien arrazoi diren kasuak gertatzen diren egunetan hartu beharko dira nahitaez, salbu eta berariaz beste aukeraren bat ezartzen bada.

4.– Ebazpen honetan ezkontideaz egiten diren aipamen guztiak funtzionarioarekin bikotekide egonkor gisa bizi den pertsonarentzat ere aplikagarriak izango dira, betiere egoera hori Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako Inskripzio Ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoari jarraiki. Bizikidetza egonkorreko bikoteen senitartekoei ere ezkontideen senitartekoen izaera dagokie.

5.– Lizentziak eta baimenak Giza Baliabideen zuzendariak emango ditu, Giza Baliabideen Zuzendaritzak Justizia Administrazioan diharduten langileen arloan betetzen dituen funtzioak ezartzen dituen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuaren 14.a artikuluan xedatutakoari jarraiki. Beraz, lizentziak eta baimenak emateko interpretazio-irizpideak (aginduek hitzez hitz diotenaz haratago, indarrean dagoen araudiaren arabera) Zuzendaritza honek hartuko ditu.

La presente Resolución pretende establecer la mínima ordenación necesaria relativa a la forma de disfrute y el procedimiento de concesión de licencias y permisos, estableciendo tanto, criterios generales como aspectos específicos cuando la naturaleza de la licencia o el permiso así lo requieran.

La presente Resolución ha sido objeto de negociación previa y acuerdo con las organizaciones sindicales, dentro de la mesa de negociación y como parte de un futuro acuerdo global de condiciones laborales.

En virtud del Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en uso de las facultades conferidas por el Decreto 44/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, resuelvo que:

1.– El personal al Servicio de la Administración de Justicia destinado en el País Vasco que ocupe puestos reservados al personal funcionario que pertenezca al Cuerpo de Médicos Forenses, Cuerpo de Ayudantes de Laboratorio, de Gestión Procesal y Administrativa, de Tramitación Procesal y Administrativa y de Auxilio Judicial o que estén integrados en las escalas a extinguir que determina la Disposición Adicional Cuarta de la Ley Orgánica 19/2003, de 26 de diciembre tendrá derecho a las licencias en los términos contemplados en la presente Resolución.

2.– Asimismo podrá concederse permisos en los términos contemplados en la presente Resolución.

3.– El disfrute de los días laborables objeto de la concesión de las licencias y permisos habrá de tener lugar necesariamente en las fechas en que se produzcan los supuestos de hecho que los motivan, salvo que expresamente se establezca otra posibilidad.

4.– Todas las referencias que se hacen en esta Resolución al cónyuge se entienden aplicables también a la persona que conviva como pareja estable con el funcionario/a, siempre que tal condición resulte acreditada mediante la Certificación de Inscripción expedida por el Registro de Parejas de Hecho de acuerdo con lo establecido en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho. Cuando exista esta convivencia estable los parentescos por afinidad habrán de entenderse asimismo en los mismos términos que para las personas casadas.

5.– La concesión de licencias y permisos corresponderá al Director de Recursos Humanos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.a del Decreto 44/2002, de 12 de febrero, que establece las funciones que ejerce la Dirección de Recursos Humanos en materia de personal al Servicio de la Administración de Justicia. Por tanto la adopción de los criterios interpretativos para otorgarlos (mas allá de la literalidad de los preceptos, según la normativa vigente), corresponderá a esta Dirección.

6.– Zuzendaritza honen Instrukzioaren bitartez finkatuko den prozedura aparte utzi gabe, eskaerak Ebazpen honi erantsitako ereduan egingo dira, lantokiaren bitartez, eta Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren edo Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendariaren edo zuzendariordearen ontzat emanarekin. Eskabideak Giza Baliabideen zuzendariari igorriko zaizkio.

Lizentzien eta baimenen arteko bateraezintasuna.– Ezin izango dira jaso, aldi berean, aurreko artikuluan aurreikusitako lizentzia eta baimen mota bat baino gehiago. Printzipio orokor horren salbuespen gisa, edoskitzerako etenaldia eta lanaldia murrizteko baimenak bateragarriak izango dira gainerakoekin. Arauzko oporraldian ere ezin izango dira ordaindutako lizentziak edo baimenak hartu.

*1. artikulua.*– Baimenak.

Baimenak, 1. paragrafoan adierazitako salbuespenarekin, behar bezala justifikatutako ondoko arrazoiengatik baino ez dira emango:

1.– Norberaren beharretarako baimena.

2.– Seme edo alaba baten jaiotza, harrera edo adopzioagatiko baimena.

3.– Senitarteko baten heriotza, istripu edo gaixotasun larriagatiko baimena.

4.– Bizilekuz aldatzeagatiko baimena.

5.– Funtzio sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimena.

6.– Zentro ofizialetan azken azterketak, eta gainerako behin betiko gaitasun eta ebaluazio probak egiteko baimena.

7.– Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egiteko baimena.

8.– Seme edo alaba baten erditze, adopzio edo harreragatiko, eta hamar hilabetetik beherako seme edo alaba baten edoskitzeagatiko baimena.

9.– Nahitaezko betebehar publiko edo pertsonal bat egiteko ezinbestekoa den denborarako baimena.

10.– Lanaldia murrizteko baimena:

10.1.– Legezko zaintzari lotutako arrazoien ondorioz.

10.2.– Aurretiko erretiroaren ondorioz.

10.3.– Funtzionarioak osatzeko duen beharraren ondorioz.

10.4.– Norberaren interesagatik.

11.– Hautapenezko karguari dagozkion funtzioak betetzeko baimena.

12.– Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko baimena.

1.– Norberaren beharretarako baimena:

6.– Sin perjuicio del procedimiento que se fijará a través de la correspondiente Instrucción de esta Dirección, las peticiones se formularán en el modelo que se adjunta a la presente Resolución, a través del centro de trabajo, con el visto bueno del responsable de la Oficina Judicial, Fiscal Jefe, Director o Subdirector del Instituto Vasco de Medicina Legal, y dirigidas al Director de Recursos Humanos.

Incompatibilidad entre licencias y permisos.– No podrá simultanearse el disfrute de más de una de las modalidades de licencias y permisos previstos en el artículo anterior. Se exceptúan de este principio general la pausa para lactancia y los permisos que conllevan reducción de jornada, que podrán ser compatibles con los demás. Durante el período de disfrute de las vacaciones reglamentarias no se podrá hacer uso de las licencias o permisos retribuidos.

*Artículo 1.*– Permisos.

A excepción del permiso señalado en el apartado 1, los permisos se concederán solamente por las causas justificadas que se citan a continuación:

1.– Permiso por asuntos particulares.

2.– Permiso por el nacimiento, acogimiento o adopción de un hijo/a.

3.– Permiso por el fallecimiento, accidente o enfermedad grave de un familiar.

4.– Permiso por traslado de domicilio.

5.– Permiso para realizar funciones sindicales, de formación sindical o de representación del personal.

6.– Permiso para concurrir a exámenes finales y demás pruebas definitivas de aptitud y evaluación en centros oficiales.

7.– Permiso para acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico.

8.– Permiso por parto, adopción o acogimiento y por lactancia de un hijo/a menor de diez meses.

9.– Permiso por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público o personal.

10.– Permiso de reducción de jornada:

10.1.– Por razones de guarda legal

10.2.– Por prejubilación.

10.3.– Por necesidad de recuperación del funcionario/a.

10.4.– Por interés particular.

11.– Permiso para atender a funciones derivadas de cargo electivo.

12.– Permiso para atender a familiares con enfermedad crónica o problemas de movilidad.

1.– permiso por asuntos particulares:

Urtearen barruan, norberaren beharretarako gehienez bederatzi baimen-egun hartzeko eskubidea izango da (justifikatu gabe). Baimenak behar adinako aurretiaz eskatu beharko dira, betiere zerbitzuaren beharrak errespetatuta, eta Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren edo Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendariaren edo zuzendariordearen aldeko txostena lortu ondoren. Honako irizpide hauei jarraituko zaie:

– Egun horiek ezin izango dira, inola ere, urteko opor ordainduekin metatu.

– Debeku horri jarraiki, oporraldia hasten edo amaitzen denetik baimen hau hartu arte egun natural bat beharko da gutxienez.

– Langileak bere beharretarako eskubidez hartu ahal izango dituen baimen-egunen urteko kopurua urtearen barruan lan egindako egunen proportziozkoa izango da.

2.– Seme edo alaba baten jaiotza, harrera edo adopzioagatiko baimena:

Seme edo alaba baten jaiotza, harrera edo adopzioagatik, ezkontideak edo izatezko bikotekideak 5 laneguneko lizentzia baterako eskubidea izango du. Erditzea dela eta, amaren edo umearen koadro klinikoan arazoren bat izanez gero (zesarea eta abar), edota erditzea ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatuz gero, ezkontideak bi lanegun gehiago izango lituzke, kasu bietan.

– Erditze anizkoitzaren kasuan, zirkunstantzia hori ez da arrazoi izango iraupen handiagoko baimen bat emateko.

– Eman beharreko baimenaren egunak erabakitzeko erreferentziazko herriak ezkontidea edo izatezko bikotekidea bizi den herria eta gertaeraren herria izango dira.

3.– Senitarteko baten heriotza, istripu edo gaixotasun larriagatiko baimena:

Kontzeptu honen zioz funtzionarioak eskubidegai duen baimenak hurrengo iraunaldiok dauzka:

3.1.– 5 lanegun ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo seme-alaben egiaztatutako gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik.

3.2.– 3 lanegun bigarren mailara bitarteko odolkidetasun edo kidetasuneko senitartekoen heriotzagatik (edo beste maila urrunago batera bitartekoenagatik, elkarrekin biziz gero).

3.3.– Bi lanegun bigarren mailara bitarteko odolkidetasun edo kidetasuneko senitartekoen gaixotasun larriagatik (edo beste maila urrunago batera bitartekoenagatik, elkarrekin biziz gero). Kasu horretan, iraupen bereko bigarren baimena jasotzeko eskubidea izango dute langileek, lehen baimena amaitu eta 30 egun igaro ondoren, baina ez da egun gehiago izango ohiko bizilekuarekiko distantziagatik.

A lo largo del año tendrán derecho a disfrutar de un máximo de nueve días de permiso por asuntos particulares sin justificación alguna, que deberá solicitarse con suficiente antelación a su disfrute, respetando siempre las necesidades del servicio, previo informe favorable del responsable de la Oficina Judicial, Fiscal Jefe, Director o Subdirector del Instituto Vasco de Medicina Legal, en su caso, y de acuerdo con los siguientes criterios:

– Tales días no podrán acumularse en ningún caso a las vacaciones anuales retribuidas.

– Tal prohibición exige que entre el inicio o la finalización del periodo de vacaciones, y el disfrute de este permiso deba mediar al menos un día natural.

– El número anual de días de permiso por asuntos particulares a que tenga derecho el trabajador será proporcional al de servicios efectivos prestados durante el año.

2.– Permiso por el nacimiento, acogimiento o adopción de un hijo/a:

Por el nacimiento, acogimiento o adopción de un hijo/a, el cónyuge o pareja de hecho tendrá derecho a una licencia de 5 días laborables. Si el alumbramiento diera lugar a complicaciones en el cuadro clínico de la madre (cesárea, etc.) o del hijo/a, y/o si tuviere lugar a más de 150 km del lugar de residencia habitual del cónyuge o de la pareja de hecho, éstos tendrán derecho, en ambos casos, a una ampliación de dos días laborables.

– En el supuesto de parto múltiple, tal circunstancia no supone causa para la concesión de un permiso de mayor duración.

– Las localidades que hay que tener de referencia para decidir los días del permiso que se han de otorgar, son la localidad de residencia habitual del cónyuge o de la pareja de hecho y la localidad donde tenga lugar el suceso.

3.– Permiso por el fallecimiento, accidente o enfermedad grave de un familiar:

El permiso a que tiene derecho el funcionario/a por este concepto, contiene los siguientes períodos de duración:

3.1.– 5 días laborables por enfermedad grave justificada o fallecimiento del cónyuge, pareja de hecho o hijo/a.

3.2.– 3 días laborables por fallecimiento de familiares hasta 2.° grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia.

3.3.– Por enfermedad grave justificada de familiares hasta 2.° grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, se dispondrá de dos días laborables. En este supuesto, el personal tendrá derecho a un segundo permiso, por el mismo período de duración, pasados 30 días consecutivos desde la finalización del primer permiso, sin que sea de aplicación, en este caso, la ampliación por distancia de la residencia habitual.

3.4.– Aipaturiko baimenaldiak, egitate sortzaileak funtzionarioaren ohiko bizilekutik ehun eta berrogeita hamar kilometro baino urrutiago gertatzekotan, beste bi egunez luzatuko dira.

3.5.– Hainbat senitartekoren heriotzaren edo gaixotasun larriaren kasuan, zirkunstantzia hori ez da arrazoi izango iraupen handiagoko baimen bat emateko.

3.6.– Eman beharreko baimenaren egunak erabakitzeko erreferentziazko herriak funtzionarioa bizi den herria eta gertaeraren herria izango dira.

4.– Bizilekuz aldatzeagatiko baimena:

Funtzionarioak, ohiko etxebizitza aldatzeagatik, 2 laneguneko lizentziarako eskubidea izango du, betiere behar bezala frogatzen badu.

5.– Funtzio sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimena:

Funtzio sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak dituztenek dagokion baimena hartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudiak ezarritako zirkunstantzia, epe, baldintza eta preskripzioei, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eskubide sindikalei eta jarduera sindikalari buruzko Esparru Akordioan jasotako estipulazioei jarraiki. Baimen sindikalak baliogabetu ahal izango dira helburua ez betetzeagatik, Administrazioarenaz bestelako eremuetan jarduera sindikalak egiteagatik, edo legezko bateraezintasuna dakartenak egiteagatik, hori guztia ezarritako itunei jarraiki, eta eraginpean hartutako sindikatuei aldez aurretik kontsulta egin ondoren. Era berean, sindikatuak edo interesatuak berak eskatuta, emandako baimenak kendu ahal izango dira.

6.– Zentro ofizialetan azken azterketak eta gainerako behin betiko gaitasun eta ebaluazio probak egiteko baimena:

Zentro ofizialetan azken azterketak eta gainerako behin betiko gaitasun eta ebaluazio probak egiteko eta beharrezkoa den denborako baimena izango du langileak azterketa horien egunetan, betiere behar bezala justifikatzen badu.

– «Azken azterketetan» eta «behin betiko gaitasun eta ebaluazio probetan», programaren zati batez liberatzeko partzialak edo amaierakoak barne hartuko dira.

– Halaber, Administrazioetako edo erakunde publikoetako kidegoetan edo eskaletan sartzeko deialdietan aurreikusita dauden hautespen-probetako ariketak barne hartuko dira.

– Baimenaren iraupena ahalik eta laburrena izango da, baina nahikoa arauaren helburua bete ahal izateko (azterketak eta behin betiko gaitasun-probak egiteko aukera ematea).

3.4.– Los citados períodos de permiso se ampliarán en 2 días naturales más, si los hechos que los motivan se produjeran a más de 150 km del lugar de residencia habitual del funcionario/a.

3.5.– En el supuesto de muerte o enfermedad grave de varios familiares, tal circunstancia no supone causa para la concesión de un permiso de mayor duración.

3.6.– Las localidades que hay que tener de referencia para decidir los días del permiso que se han de otorgar, son la localidad de residencia habitual del funcionario/a y la localidad donde tenga lugar el suceso.

4.– Permiso por traslado de domicilio:

Con motivo de efectuar traslado o mudanza de su domicilio habitual el funcionario/a tendrá derecho a una licencia de 2 días laborables de duración, justificándolo debidamente.

5.– Permiso para realizar funciones sindicales, de formación sindical o de representación del personal:

Quienes ejerzan funciones sindicales, de formación sindical o de representación del personal tendrán derecho a disfrutar del correspondiente permiso de conformidad con las circunstancias, plazos, requisitos y prescripciones que establezca la normativa vigente y las estipulaciones contenidas en el Acuerdo Marco sobre derechos sindicales y ejercicio de actividad sindical en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Los permisos sindicales pueden ser revocados por incumplimiento de la finalidad para la que se concedieron, por realización de actividades sindicales para ámbitos distintos al de la Administración o que incurran en causa de incompatibilidad legal, todo ello a tenor de los pactos establecidos y previa consulta con las organizaciones sindicales afectadas. Asimismo los permisos concedidos pueden ser cancelados a petición del Sindicato o del propio interesado.

6.– Permiso para concurrir a exámenes finales y demás pruebas definitivas de aptitud y evaluación en centros oficiales:

Para concurrir a exámenes finales y demás pruebas definitiva de aptitud y evaluación en Centros Oficiales, tendrá derecho a un permiso durante los días de su celebración, justificándolo debidamente, y por el tiempo indispensable.

– En los términos «exámenes finales» y «pruebas definitivas de aptitud y evaluación» deben entenderse incluidos los que tengan carácter final o parcial liberatorio de una parte del programa.

– Deben entenderse incluidos los ejercicios de pruebas selectivas previstos en las correspondientes convocatorias para ingreso en los Cuerpos o Escalas de las Administraciones y Organismos Públicos.

– El permiso debe concederse por el tiempo mínimo pero también suficiente para que la norma cumpla su objetivo de hacer posible la asistencia a exámenes y pruebas definitivas de aptitud.

– Baimena emateko edo ukatzeko aukera aurreko paragrafoan adierazitako irizpide orokorrera egokitzeko, kasu bakoitzeko zirkunstantzia bereziak behar bezala aztertu beharko ditu Zuzendaritza honek.

– Orientazio-izaera orokorrez, esan beharra dago azterketak nahitaez (funtzionarioak aukera egin gabe) beste herri batean egin behar izanez gero, baimena azterketak egiteko behar den denboran luzatuko dela, azterketa egin beharreko lekura joateko behar den denbora erantsita.

– Orientazio-izaera orokor berarekin, adierazi beharra dago azterketak herrian bertan, eta egun baliogabean edo funtzionario eskatzailearen lan-ordutegitik kanpo egin behar izanez gero, baimena ematea ez dela bidezkoa izango.

7.– Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egiteko baimena:

Norberaren premiak direla eta, lan-orduetan kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egiteko baimena izango dute funtzionarioek, bertara joateko behar besteko arrazoiak daudenean, eta egiten diren zentroetan dagoen kontsulta-ordutegiak lan-orduez kanpo joateko aukerarik uzten ez duenean. Iraupena, eskuarki, beharrezkoa den denborarakoa eta gehienez 4 ordukoa izango da, behar bezala frogatutako kasu berezietan izan ezik. Baimen hori ordaindutakoa izango da.

Umea jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzea prestatzeko teknikak ikasteko beharrezkoa den denborarako baimen ordaindurako eskubidea izango du haurdunaldian dagoen funtzionarioak, eta ordaindu egingo zaio. Horretarako, frogatu egin beharko da azterketak lanaldiaren barruan egin behar direla, eta funtzionarioa benetan bertara joan dela.

Era berean, funtzionarioek bigarren mailara bitarteko odolkidetasun edo kidetasuneko senitartekoei (edo beste maila urrunago batera bitartekoei, elkarrekin biziz gero) lagundu ahal izango diete medikuen kontsultetara, tratamenduetara eta azterketetara, baldin eta lagundu beharreko pertsonen zirkunstantziengatik beharrezkoa bada, eta zentroek lan-orduz kanpo joateko aukerarik ematen ez badute. Horretarako erabilitako denbora hilabete bateko epean sartu beharko da.

8.– Seme edo alaba baten erditze, adopzio edo harreragatiko, eta hamar hilabetetik beherako seme edo alaba baten edoskitzeagatiko baimena:

8.1.– Erditzearen kasuan, baimenaren iraupena hamazazpi astekoa izango da, eta etengabea izango da. Erditze anizkoitzen kasuan, bigarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko beste bi astetan zabaldu ahal izango da. Baimena funtzionarioak nahi bezala banatuko da (erditzearen aurretik zein ondoren), betiere erditu eta hurrengo sei asteak ezinbestekoak direla kontuan har-

– Las circunstancias particulares concurrentes en cada caso deberán ser ponderadas adecuadamente por esta Dirección para que la concesión o denegación del permiso se ajuste al criterio general señalado en el párrafo anterior.

– Con carácter general orientativo cabe decir que, en el caso de que los exámenes se celebren, necesariamente y no por opción del funcionario, fuera de su localidad de destino, el permiso puede extenderse al tiempo de celebración de los exámenes, agregando el necesario para el desplazamiento al lugar de examen.

– Con el mismo carácter general orientativo, cabe indicar que si los exámenes se celebran en la misma localidad y en día inhábil o fuera del horario de trabajo del funcionario solicitante, no resulta procedente la concesión del permiso.

7.– Permiso para acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico:

Los funcionarios/as tienen derecho a permiso para acudir, por necesidades propias, a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico durante la jornada de trabajo, cuando las asistencias estén debidamente justificadas y los centros donde se efectúen no tengan establecidas horas de consulta que permitan acudir a ellos fuera de horas de trabajo. La duración del mismo, con carácter general, será por el tiempo indispensable y como máximo de 4 horas, salvo casos excepcionales debidamente acreditados. Dicho permiso será retribuido.

La funcionaria embarazada tendrá derecho a un permiso retribuido por el tiempo indispensable para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación al parto. A tal efecto, deberá justificarse la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo, acreditándose debidamente la asistencia.

Asimismo, los funcionarios/as podrán acompañar a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico a sus familiares de hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, si así fuera preciso por las circunstancias concurrentes en las personas acompañadas, y los centros donde se efectúen no tengan establecidas horas de consulta que permitan acudir fuera de las de trabajo. El tiempo empleado se habrá de recuperar en el plazo de un mes.

8.– Permiso por parto, adopción o acogimiento y por lactancia de un hijo/a menor de diez meses.

8.1.– En el supuesto de parto, la duración del permiso será de diecisiete semanas ininterrumpidas, ampliables en el caso de parto múltiple en dos semanas más por cada hijo/a a partir del segundo. El permiso se distribuirá, antes y después del parto a opción de la funcionaria siempre que al menos seis semanas sean inmediatamente posteriores al parto. En caso de fallecimien-

tuta. Ama hiltzen bada, aitak hartu ahal izango du baimen osoa edo, hala badagokio, geratzen den zatia.

Aurrekoa gorabehera, eta erditzearen ondorengo sei asteko atsedenaldia, amarentzako nahitaezkoa dena, aparte utzi gabe, aitak eta amak lan egiten badute, amatasunagatiko atsedenaldia hasitakoan amak aukera izango du aitari erditzearen ondorengo atsedenaldiaren zati zehatz eta etengabea uzteko, berarekin batera, edo berea amaitutakoan, une horretan lanera itzultzea amaren osasunerako arriskutsua denean salbu.

Atsedenaldiak aldi berean hartzen diren kasuetan, aldi horien baturak ez ditu aurreko paragrafoetan aurreikusitako hamazazpi asteak, edo erditze anizkoitzaren kasuan dagozkienak gaindituko.

Erditze goiztiarren kasuan, eta jaioberriak erditzearen ondoren ospitaleratuta jarraitu behar duenean, amak edo, halakorik ezean, aitak eskatuta, ospitaleko altaren datatik aurrera zenbatu ahal izango da baimena. Amak nahitaez atseden hartzeko diren erditzearen ondorengo lehen sei asteak zenbaketa horretatik kanpo geratzen dira. Kasu horretan, lana ordu batean uzteko eskubidea izango du funtzionarioak. Era berean, lanaldia murrizteko eskubidea izango du, gehienez bi orduz; orduan, ordainsariak proportzio berean murriztuko zaizkio.

Baimenaren aldi osoa agortu ondoren emakume langilea lanera normal itzultzea eragozten dion osasunegoeran badago, gaixotasunagatiko baja-egoeran geratuko da, baina horretarako behar diren izapideak bete beharko ditu.

8.2.– Sei urtetik beherako haurren adopzioaren edo harreraren (adopzio aurrekoaren zein iraunkorraren) kasuetan, baimenaren iraupena hamazazpi aste etengabekoa izango da. Adopzio edo harrera anizkoitzen kasuan, bigarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko beste bi astetan zabaldu ahal izango da baimena, harrerari buruzko erabaki administratibo edo judizialetik aurrera, edota adopzioa gauzatzen duen ebazpen judizialetik aurrera kontatzen hasita (funtzionarioak aukeratuko du). Halaber, baimenaren iraupena hamazazpi astekoa izango da sei urtetik gorako adingabeen adopzio edo harrera kasuetan, betiere adingabe horiek ezinduak edo minusbaliatuak badira, edota beren zirkunstantzia eta esperientzia pertsonalen ondorioz, edo atzerritarrak izateagatik, gizarteratzeko eta familian txertatzeko zailtasun bereziak –gizarte-zerbitzu eskudunek behar bezala egiaztatuak– badituzte. Bai amak, bai aitak lan egiten dutenean, baimena interesatuek nahi bezala banatuko da, eta aldi berean zein bata bestearen ondoren hartzeko aukera izango da, betiere etengabeko aldietan.

to de la madre, el padre podrá hacer uso de la totalidad o, en su caso, de la parte que reste del permiso.

No obstante lo anterior, y sin perjuicio de las seis semanas inmediatas posteriores al parto de descanso obligatorio para la madre, en el caso de que la madre y el padre trabajen, ésta, al iniciarse el período de descanso por maternidad, podrá optar por que el padre disfrute de una parte determinada e ininterrumpida del período de descanso posterior al parto, bien de forma simultánea o sucesiva con el de la madre, salvo que en el momento de su efectividad la incorporación al trabajo de la madre suponga un riesgo para su salud.

En los casos de disfrute simultáneo de períodos de descanso, la suma de los mismos no podrá exceder de las diecisiete semanas previstas en los apartados anteriores o de las que correspondan en caso de parto múltiple.

En los casos de parto prematuro y en aquellos en que, por cualquier otra causa, el neonato deba permanecer hospitalizado a continuación del parto, el permiso, podrá computarse, a instancia de la madre o, en su defecto, del padre a partir de la fecha del alta hospitalaria. Se excluyen de dicho cómputo las primeras seis semanas posteriores al parto, de descanso obligatorio para la madre. En este supuesto, la funcionaria o el funcionario tendrán derecho a ausentarse del trabajo durante una hora. Asimismo, tendrán derecho a reducir su jornada de trabajo hasta un máximo de dos horas, con la disminución proporcional de sus retribuciones.

Si una vez agotado el período total del permiso la mujer trabajadora presentase un cuadro clínico que le impidiera la reincorporación al normal desempeño de su trabajo, pasará a la situación de baja por enfermedad, debiendo observar, al efecto, los trámites preceptivos.

8.2.– En los supuestos de adopción o acogimiento, tanto preadoptivo como permanente, de menores de hasta seis años, el permiso tendrá una duración de diecisiete semanas ininterrumpidas, ampliables en el supuesto de adopción o acogimiento múltiple en dos semanas más por cada hijo/a a partir del segundo, contadas a la elección del funcionario, bien a partir de la decisión administrativa o judicial de acogimiento, bien a partir de la resolución judicial por la que se constituya la adopción. La duración del permiso será, asimismo, de diecisiete semanas en los supuestos de adopción o acogimiento de menores, mayores de seis años de edad, cuando se trate de menores discapacitados o minusválidos o que por sus circunstancias y experiencias personales o que, por provenir del extranjero, tengan especiales dificultades de inserción social y familiar, debidamente acreditadas por los servicios sociales competentes. En caso de que la madre y el padre trabajen, el permiso se distribuirá a opción de los interesados, que podrán disfrutarla de forma simultánea o sucesiva, siempre con períodos ininterrumpidos.

Atsedenaldiak aldi berean hartzen diren kasuetan, aldi horien baturak ez ditu aurreko paragrafoetan aurreikusitako hamazazpi asteak, edo adopzio edo harrera anizkoitzaren kasuan dagozkienak gaindituko.

Nazioarteko adopzioetan, gurasoek aldez aurretik adopzioan hartutakoaren jatorrizko herrialdera joan behar dutenean, adopzioa gauzatzen duen ebazpena baino lau aste lehenago hasi ahal izango da artikulu honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako baimena.

8.3.– Erditze, adopzio edo harreragatiko baimenak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira (funtzionarioen aukeran), betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute, lana eta familia uztartzeko neurriei buruzko urtarrilaren 30eko 180/2004 Errege Dekretuan xedatu bezala.

8.4.– Era berean, funtzionarioak lanean ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea izango du hamar hilabete baino gutxiagoko seme-alaba bakoitzeko; denbora hori zati bitan bana dezake titia edo biberoia emateko. Emakumeak, bere borondatez eta helburu berarekin, lanaldi arruntaren murrizketa batekin ordezkatu ahal izango du eskubide hori (ordu-erdi hartu ahal izango du lanaldiaren hasieran eta amaieran, edota ordubete lanaldiaren hasieran edo amaieran). Biberoia eman behar den kasuan, lanaldia eten edo murrizteko eskubidea aitari ere eman dakioke, honek eskatu eta honako puntu hauek frogatu ondoren: ama langilea dela eta baimena hartzeari uko egiten diola edo hartu ezin duela.

Funtzionarioak aurreko paragrafoan azaldutako lizentziari eutsi, edo denbora hori haurdunaldi eta erditzeagatiko lizentziari gehitzeko aukera izango du. Kontuan hartu behar da lan egin daitekeen egunetako orduak soilik zenba daitezkeela. Hori dela eta, funtzionarioak eskaera egiten duenean, hamargarren hilabetea bete arte geratzen den denbora-tartean lizentziak, baimenak, oporrak edo eszedentziak eskatuko dituen jakinarazi beharko du, aldi horiek zenbaketatik salbuesteko.

9.– Nahitaezko betebehar publiko edo pertsonal bat egiteko ezinbestekoa den denborarako baimena:

Nahitaezko betebehar publiko edo pertsonal bat egiteko, behar beste denborarako baimena izango dute funtzionarioek, baldin eta lan-orduetatik kanpo egiterik ez badago.

– Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira nahitaezko betebehar publiko edo pertsonaltzat:

a) Epaitegi, polizia-etxe, gobernu zibil edo militarren deiak, arma-ikuskapenak edo militarrak, nortasun-

En los casos de disfrute simultáneo de períodos de descanso, la suma de los mismos no podrá exceder de las diecisiete semanas previstas en los apartados anteriores o de las que correspondan en el caso de adopción o acogimiento múltiple.

En los supuestos de adopción internacional, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los padres al país de origen del adoptado, el permiso previsto para cada caso en el presente artículo, podrá iniciarse hasta cuatro semanas antes de la resolución por la que se constituye la adopción.

8.3.– Los permisos por parto y adopción o acogimiento podrán disfrutarse en régimen de jornada completa o a tiempo parcial, a solicitud de los funcionarios y si lo permiten las necesidades del servicio, en los términos que se dispone en el Real Decreto 180/2004, de 30 de enero, que adopta medidas para la conciliación de la vida laboral y familiar.

8.4.– Asimismo, la funcionaria tendrá derecho a una pausa de una hora en su trabajo por cada hijo/a menor de diez meses, que podrá dividir en dos fracciones cuando la destine a la lactancia natural o artificial. La mujer, por su voluntad, podrá sustituir este derecho por una reducción de la jornada ordinaria de trabajo en media hora al inicio y al final de la jornada, o en una hora al inicio o al final de la jornada, con la misma finalidad. El derecho a la pausa o reducción en la jornada laboral para el caso de lactancia artificial podrá hacerse extensivo al padre, previa solicitud y justificación por parte de éste, que deberá acreditar la condición de trabajadora de la madre y su renuncia o imposibilidad para disfrutar del permiso.

La funcionaria podrá optar entre hacer uso de la licencia a que se refiere el párrafo anterior o acumular el tiempo resultante a la licencia por embarazo y alumbramiento. Ha de tenerse en cuenta que únicamente serán computables a estos efectos, las horas correspondientes a días que fueran susceptibles de prestación efectiva de servicios. Por ello, en el momento de su solicitud, la funcionaria habrá de comunicar si en el tiempo que resta hasta el cumplimiento del décimo mes solicitará el disfrute de licencias, permisos, vacaciones o excedencias, al objeto de proceder a la exclusión de estos períodos del cómputo.

9.– Permiso por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público o personal:

Para el cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público o personal, podrá concederse permiso a los funcionarios/as por el tiempo necesario para su cumplimiento, siempre y cuando no pueda efectuarse fuera del horario de trabajo.

– En todo caso se considerarán deberes inexcusables de carácter público o personal los siguientes:

a) Citaciones de Juzgados, Comisarías, Gobiernos Civiles o Militares, Revista Militar y de Armas, DNI,

agiria, pasaportea, ziurtagiriak eta erregistro-izapideak erakunde ofizialetan.

b) Bigarren mailara bitarteko odolkidetasun edo kidetasuneko senitarteko minusbaliatu psikiko edo fisikoei beren egoerari dagozkion izapideak egiten laguntzea.

c) Gidabaimena eskuratzeko edo eraberritzeko azterketa.

d) Notario deiak eta izapideak.

e) Erakunde ofizialetan egin beharreko izapideak.

f) Zinegotzi, diputatu, batzar nagusietako kide edo legebiltzarkide izateagatik gobernu-organoen edo horien menpeko batzordeen bileretara joatea.

10.– Lanaldia murrizteko baimena:

10.1.– Legezko zaintzari lotutako arrazoien ondorioz hamabi urtetik beherako adingabe bat, arreta berezia eskatzen duen edadetu bat, edo ordaindutako jarduerarik egiten ez duen minusbaliatu psikiko edo fisiko bat zuzeneko zaintzapean duen funtzionarioaren lanaldia murrizteko baimena.

Legezko zaintzari lotutako arrazoien ondorioz hamabi urtetik beherako adingabe bat, arreta berezia eskatzen duen edadetu bat, edo ordaindutako jarduerarik egiten ez duen minusbaliatu psikiko edo fisiko bat zuzeneko zaintzapean duen funtzionarioak lanaldia bosten batean, heren batean edo erdian murrizteko eskubidea izango du. Kasu horretan, ordainsariak proportzio berean murriztuko dira (kontzeptu guztietan). Minusbaliatu fisiko edo psikiko batengatik pentsio bat jasotzea ezin da jarduera ordaindua egitearekin parekatu eta, beraz, legezko zaintza esleituta duenak lanaldia murrizteko eskubidea izango du.

Istripu edo gaixotasun baten ondorioz bere kabuz moldatzeko gauza ez den eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duen bigarren mailara bitarteko odolkidetasuneko edo kidetasuneko senitarteko baten zuzeneko zaintzaz arduratu behar duen funtzionarioak eskubide berbera izango du, senide hori berarekin bizi bada, beti ere.

10.2.– Aurretiko erretiroaren ondorioz.

Funtzionarioei nahitaezko erretiroko adinera iristeko bost urte baino gutxiago geratzen zaizkienean, lanaldia erdira murriztea eskatu ahal izango dute, betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute. Kasu horretan, ordainsariak proportzio berean murriztuko dira.

10.3.– Funtzionarioak osatzeko duen beharraren ondorioz.

Lanaldiaren murrizketa hori (erdira, ordainsariak ere proportzio berean murriztuta) gaixotasunen ondorioz osatzeko prozesuak behar dituzten funtzionarioek eska-

Pasaporte, Certificados y Registros en Centros Oficiales.

b) Acompañamiento a parientes con minusvalía psíquica o física, hasta 2.° grado de consanguinidad o afinidad, a la realización de trámites puntuales en razón de su estado.

c) Examen o renovación del carnet de conducir.

d) Requerimientos y trámites notariales.

e) Trámites necesarios en Organismos Oficiales.

f) La asistencia a las reuniones de los Órganos de Gobierno y Comisiones dependientes de los mismos de que formen parte en su calidad de cargo electivo como concejal, concejala, diputado, diputada, juntero, juntera, parlamentario o parlamentaria.

10.– Permiso de reducción de jornada:

10.1.– Permiso de reducción de jornada al funcionario que por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algún menor de doce años, anciano que requiera especial dedicación o a un disminuido psíquico o físico que no desempeñe actividad retribuida.

El funcionario/a que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo algún menor de doce años, anciano que requiera especial dedicación, o a un disminuido psíquico o físico, que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a la disminución de su jornada de trabajo, en un quinto, un tercio o en la mitad de su duración, con la consiguiente reducción proporcional de sus retribuciones en todos sus conceptos. La percepción de una pensión por un disminuido físico o psíquico no es equiparable al desempeño de actividad retribuida, por lo que quien tenga atribuida su guarda legal tiene derecho a la disminución de la jornada de trabajo.

Tendrá el mismo derecho el funcionario/a que precise encargarse del cuidado directo de un familiar, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, que por razones de edad, accidente o enfermedad no pueda valerse por sí mismo y que conviva con el mismo.

10.2.– Por prejubilación.

Los funcionarios/as a quienes falten menos de cinco años para cumplir la edad de jubilación forzosa, podrán obtener, a su solicitud, la reducción de su jornada de trabajo hasta un medio, con la reducción proporcional de retribuciones, siempre que las necesidades del servicio lo permitan.

10.3.– Por necesidad de recuperación del funcionario/a.

Dicha reducción de jornada de hasta un medio con la reducción proporcional de retribuciones podrá ser solicitada y obtenida, de manera temporal, por aquellos

tu eta lortu ahal izango dute aldi baterako, betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute.

10.4.– Norberaren interesagatik.

Betetzen duen lanpostuari dagozkion funtzioekin bateragarria bada eta, nolanahi ere, entzunaldi publikorako finkatutako ordutegia errespetatzen badu, lanaldia erdira edo heren batean murriztea eskatu ahal izango du karrerako funtzionarioak. Kasu horretan, ordainsari guztiak (hirurtekoak barne) proportzio berean murriztuko dira. Norberaren interesagatik eskatutako lanaldi-murrizketa emateko, zerbitzuaren beharrak hartuko dira kontuan, eta murrizketa hori bateraezina izango da murrizten den ordutegian edozein motatako jarduera (ordaindua zein ordaindu gabekoa) egitearekin. Eskabidea urtebeterako izango da gutxienez. Baimen hori amaitu eta gero, ezin izango da beste halako baimenik eskatu, harik eta amaitzen denetik hiru urte igaro arte. Jarduneko zerbitzuan sartu edo zerbitzura itzuli ondoren bi urte pasa eta gero baino ezingo da eskatu baimen hori.

11.– Hautapenezko karguari dagozkion funtzioak betetzeko baimena:

Erakundeetako hautapenezko kargudun diren funtzionarioek kargu horien ondoriozko funtzioak (9.f) artikuluko kasuetan barne hartu gabekoak) betetzeko baimena izango dute, horretarako behar den denboran, betiere guztira urteko lanaldiaren ehuneko 10 gainditzen ez bada. Baimenari dagokion denborak ez du ezein ordainsari jasotzeko eskubiderik emango, eta dagokion denbora errekuperatu egin beharko da. Egoera horretan dauden funtzionarioek, halaber, lanaldi arrunta bosten batean, heren batean edo erdian murrizteko baimena izango dute; kasu horretan, ordainsaria proportzio berean murriztuko da kontzeptu guztietan.

12.– Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko baimena:

Bigarren mailara bitarteko odolkidetasuneko zein kidetasuneko senitartekoak (edo beste maila urrunago batera bitartekoak, elkarrekin biziz gero) zaindu behar dituen langileak (mugitzeko arazoak izateagatik edo txosten medikoaren bitartez egiaztatutako gaixotasun larria eta jarraitua jasateagatik) urteko berrogeita hamar orduko baimen ordaindurako eskubidea izango du. Oro har, egunean bi ordu erabili ahal izango dira 50 orduko kreditu horretatik, hain zuzen ere, lanera sartzean edo lanetik irtetean.

*2. artikulua.*– Lizentziak.

1.– Norberaren edo senitartekoen ezkontzagatiko lizentzia.

2.– Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak egiteko lizentzia.

funcionarios/as que la precisen en procesos de recuperación por razón de enfermedad, siempre que las necesidades del servicio lo permitan.

10.4.– por interés particular.

Siempre que resulte compatible con las funciones del puesto desempeñado y respetando en todo caso el horario fijado de audiencia pública, el funcionario/a de carrera podrá solicitar la reducción de jornada en la mitad o en un tercio de su jornada laboral, con la reducción proporcional de todas sus retribuciones, incluidos trienios, La concesión de la reducción de jornada por interés particular estará subordinada a las necesidades del servicio y será incompatible con el desarrollo de cualquier actividad, sea o no remunerada, durante el horario objeto de la reducción. La solicitud será por un plazo mínimo de un año. Una vez interrumpido el disfrute de este permiso, no cabrá nueva solicitud hasta transcurridos tres años desde la finalización de su disfrute. Solo podrá solicitarse después de haber transcurrido dos años del ingreso o reingreso al servicio activo.

11.– Permiso para atender a funciones derivadas de cargo electivo:

Los funcionarios/as que ostenten la condición de cargos electivos institucionales dispondrán de un permiso para el desempeño de aquellas funciones derivadas de dicha condición, y que no se encuentren incluidas en los supuestos del punto 9.f, por el tiempo necesario para ello, y siempre que el montante total del mismo no supere el 10 por ciento de la jornada anual. El tiempo disfrutado en virtud de este permiso no dará derecho a retribución alguna, siendo objeto de la recuperación horaria correspondiente. Los funcionarios/as que ostenten dicha condición podrán también, alternativamente, disfrutar de un permiso consistente en una reducción de la jornada ordinaria de trabajo, en un quinto, en un tercio o en la mitad de su duración, con la consiguiente reducción proporcional de sus retribuciones en todos sus conceptos

12.– Permiso para atender a familiares con enfermedad crónica o problemas de movilidad:

El personal que tenga que atender o cuidar a un o una familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, por tener dificultades de movilidad o padecer una enfermedad grave continuada, acreditada por informe médico, dispondrá de un permiso retribuido de hasta cincuenta horas anuales. Con carácter general, el tiempo máximo de uso diario de este crédito horario será de dos horas y su disfrute habrá de realizarse siempre coincidiendo con alguna de las entradas o salidas al trabajo.

*Artículo 2.*– Licencias.

1.– Licencia por matrimonio propio o de parientes.

2.– Licencia para realización de cursos de formación y perfeccionamiento.

3.– Norberaren beharretarako lizentzia.

4.– Praktiketako funtzionario izendatzeko lizentzia.

5.– Gaixotasun edo istripuagatiko lizentziak.

1.– Norberaren edo senitartekoen ezkontzagatiko lizentzia:

1.1.– Norberaren ezkontzaren kasuan, 20 egun naturaleko lizentzia baterako eskubidea izango dute funtzionarioek.

1.2.– Funtzionarioek izatezko bikote batean bizikidetza egonkorra hasten dutenean, eskubide bera izango dute, betiere egoera hori Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako Inskripzio Ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honek indarra hartu eta gero bizikidetza egonkorrean hasten diren langileentzat baino ez da izango lizentzia hau.

Lizentziaren hogei egunak egun naturaltzat hartu behar dira, eta ezkontza egiten den edo erregistroan izatezko bikote gisa izena ematen den egunaren aurretik edo ondoren hartu ahal izango dira, baina, edonola ere, egun hori barne hartuta geratuko da.

Lizentzia hori oporraldiarekin metatu ahal izango da, oporraldiaren aurretik edo ondoren. Kasu horretan, gutxienez 15 eguneko aurretiaz jakinarazi beharko zaio Giza Baliabideen Zuzendaritzari, Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren edo Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendariaren bitartez.

Ezkontza edo bizikidetza egonkorra dela eta, ezin izango da beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte, eta inolaz ere ez bikotekideak berak direnean.

1.3.– Ezkontzen direnak langilearen gurasoak, aita-amaginarrebak, neba–arrebak, suhi-errainak, seme-alabak, ilobak edo aitona-amonak direnean, langileak ezkontza-eguna izango du libre, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago egiten bada, hiru egun natural emango zaizkio, joan-etorria errazteko.

2.– Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak egiteko lizentzia:

Honako kasu hauetan eman ahal izango dira prestakuntza eta hobekuntza lizentziak:

– Eusko Jaurlaritzako Justizia Sail honek antolatuta urtean egiten diren prestakuntza-planetan barne hartutako prestakuntza-ikastaroetara joateko. Lizentziaren iraupena eta modua egin beharreko ikastaroek duten iraupenaren eta programazioaren araberakoak izango dira, eta ez dute inolako mugarik eragingo lansariei dagokienez.

3.– Licencia por asuntos propios.

4.– Licencia para ser nombrado funcionario en prácticas.

5.– Licencias por enfermedad o accidente.

1.– Licencia por matrimonio propio o de parientes:

1.1.– Por razón de matrimonio propio, los/as funcionarios/as tendrán derecho a una licencia de 20 días naturales de duración.

1.2.– Igual derecho tendrán los funcionarios/as cuando inicien una convivencia estable en pareja de hecho, siempre que se acredite mediante la Certificación de Inscripción expedida por el Registro de Parejas de Hecho de acuerdo con lo establecido en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

Únicamente podrá disfrutar esta licencia el personal cuya convivencia estable se inicie con posterioridad a la entrada en vigor de la presente Resolución.

Los veinte días de duración de la licencia se han de entender como días naturales y pueden ser inmediatamente anteriores o posteriores en todo o en parte a aquél en que se celebre el matrimonio o se produzca la inscripción en el registro como pareja de hecho, pero en todo caso se entiende comprendido el día de celebración o inscripción en el registro como pareja de hecho.

Esta licencia se podrá acumular al período vacacional con anterioridad o posterioridad a su disfrute, comunicándolo con un plazo mínimo de 15 días de antelación a la Dirección de Recursos Humanos a través del responsable de la Oficina Judicial, Fiscal Jefe, Director o Subdirector del Instituto Vasco de Medicina Legal.

No cabrá disfrutar nueva licencia por matrimonio o inicio de convivencia estable hasta tanto haya transcurrido un período de 6 años, y en ningún caso cuando los miembros que forman la pareja sean los mismos.

1.3.– Cuando el matrimonio lo contraigan padres, madres, padres políticos, madres políticas, hermanos/as, hermanos/as políticos/as, hijos/as, nietos/as, abuelos/as del personal empleado, éste tendrá derecho a una licencia de un día natural, en la fecha de la celebración, que se ampliará a tres días naturales si la celebración se efectuase a más de 150 km del lugar de su residencia, al objeto de facilitar el desplazamiento.

2.– Licencia para realización de cursos de formación y perfeccionamiento:

Podrán concederse licencias para formación y perfeccionamiento en los siguientes casos:

– Para la asistencia a cursos de formación incluidos en los planes de formación que se celebren anualmente, organizados por este Departamento de Justicia del Gobierno Vasco. La duración y forma de disfrute estarán determinadas por la duración y programación de los cursos a realizar y no supondrán limitación alguna de haberes.

– Funtzionarioaren kidegoaren berezko funtzioei lotuta dauden eta funtzio horiek gauzatzeko prestakuntza osatzea helburu duten ikastaro, kongresu edo jardunaldietara joateko. Lizentzia hori emateko, zerbitzuaren beharrak eta aurrekontu-baliabideak hartuko dira kontuan; iraupena, berriz, ikastaro, kongresu edo jardunaldien araberakoa izango da. Lizentziak oinarrizko ordainsariak eta kargurako seme edo alaba bakoitzeko prestazioak jasotzeko eskubidea emango du.

3.– Norberaren beharretarako lizentzia:

3.1.– Norberaren eginkizunetarako lizentzia, oso arrazoi biribilagatik ez bada, jardunean hasi edo lanera berriz sartu eta urtebete igaro arte ezin izango da eskatu.

Funtzionarioek norberaren beharretarako lizentziak eskatu ahal izango dituzte, ezein ordainsari jasotzeko eskubiderik gabe. Lizentziaren aldia oporrak kalkulatzeko zenbaketatik salbuetsiko da, eta lizentziaren iraupen metatua hiru hilabetekoa izango da gehienez, lan egindako bi urteko. Lizentzia emateko, zerbitzuaren beharrak hartuko dira kontuan. Bi urteak lizentzia hartzen den egunetik hasiko dira zenbatzen; hori horrela, segidako hiru hilabeteko aldirako ematen bada, ezin izango da beste bat eman bi urte igaro arte, lehenengoaren hasierako egunetik aurrera kontatzen hasita. Aldi laburragoetan, halaber, hasierako egunetik hasiko da zenbatzen, baina bi urteko epearen barruan norberaren beharretarako beste baimen batzuk eman ahal izango dira, hiru hilabeteak osatu arte. Zenbaketa horren ondorioetarako, hasieratik amaierara bitarteko egunak hartuko dira lizentziako eguntzat, lanegunak ala jaiegunak diren kontuan hartu gabe. Lizentziaren emakida denboraldi laburretan zatitu ahal izango da, hiru hilabeteko gehieneko iraupenera iritsi arte. Horrela, beraz, kasu gehienetan larunbateko eta igandeko lansariak osorik ordainduko dira, hain zuzen ere aurreko egun baliodunetan lan egin izanagatik. Ondorioz, konparaziozko bidegabekeria dago hilabete osoetarako edo zatikatuetarako emandako lizentziekiko, kasu horietan larunbateko eta igandeko ordainsaria barne hartzen baita deskontuan. Lizentzia hau eman daitekeen kasu guztiei tratamendu berdina emateko, honako formula hau aplikatuko da:

$$\frac{\text{Hilabeteko ordainsaria, guztira}}{30} + \frac{\text{Aparteko ordainsariak}}{360}$$

Lehen batugaia lizentzia hartzen den hilabeteko nominatik deskontatuko da eta, bigarrena, berriz, hilabete horren ondoren ordaindu beharreko lehen aparteko ordainsaritik. Emaitza 1,40rekin biderkatuko da (1 eguneko ordainsaria da, eta 0,40 larunbateko eta igandeko zati proportzionala). Ondorio ekonomikoetarako, egun baliodunak soilik hartuko dira lizentziako eguntzat.

– Para la asistencia a cursos, congresos o jornadas siempre que estén relacionadas con las funciones propias del cuerpo al que pertenece el funcionario y supongan completar su formación para el ejercicio de las mismas. Su concesión estará subordinada a las necesidades del servicio y a las disponibilidades presupuestarias y su duración vendrá determinada por la de los cursos, congresos o jornadas. Estas licencias darán derecho a percibir las retribuciones básicas y las prestaciones por hijo/a a cargo.

3.– Licencia por asuntos propios:

3.1.– Esta licencia, salvo causas muy justificadas, sólo podrá solicitarse después de haber transcurrido un año continuado de servicio activo.

Los funcionarios podrán disfrutar de licencias por asuntos propios sin derecho a retribución alguna, siendo excluido el periodo de su disfrute del cómputo para el cálculo de vacaciones, y cuya duración acumulada no podrá exceder de tres meses cada dos años de servicios efectivos y su concesión estará subordinada a las necesidades del servicio. El cómputo de los dos años comenzará el día en que se inicie el disfrute de la licencia, de modo que si ésta se concede por un período de tres meses continuados no podrá otorgarse otro de la misma naturaleza hasta transcurridos dos años desde tal fecha. Para solicitudes por un período inferior, el cómputo comenzará igualmente el día en que se inicie el disfrute, y en el plazo de dos años desde tal fecha podrán concederse permisos por asuntos propios por el período que reste hasta completar tres meses. A efectos de este computo, se entenderán como días de licencia los comprendidos entre su comienzo y finalización, con independencia de su carácter laborable o festivo. La concesión de esta licencia puede fraccionarse en cortos periodos de tiempo hasta alcanzar los tres meses de duración máxima, lo que implica que en la mayoría de supuestos sean retribuidos en su totalidad los haberes del sábado y domingo cuando éstos se satisfacen precisamente por haber trabajado los días hábiles anteriores, produciéndose un agravio comparativo respecto de las licencias concedidas por meses completos y/o fraccionados en los que el descuento incluye la retribución de los correspondientes sábados y domingos. Con la finalidad de que con carácter general reciban un tratamiento uniforme todos los supuestos de concesión de esta licencia, será de aplicación la siguiente formula:

$$\frac{\text{Retribución integra mensual}}{30} + \frac{\text{Retribución pagas extras}}{360}$$

El primer sumando se descontará en la nomina del mes de disfrute de la licencia, y el segundo en la primera paga extraordinaria a abonar con posterioridad al citado mes. Si bien el total resultante se multiplicará por 1,40, de donde 1 es la retribución diaria y 0,40 la parte proporcional correspondiente a sábado y domingo. A efectos económicos serán computados como días de licencia exclusivamente los días hábiles.

3.2.– Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen bada, urtean elkarren segidako lau hilabete eman ahal izango dira aldi bakarrean.

3.3.– Lizentzia garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada (gobernuz kanpoko erakundeen babespean), baimenaren iraupen metatua ezin izango da urtebetetik gorakoa izan bost urtetik behin, eta gutxieneko aldia hiru hilabetekoa izango da.

3.4.– Halaber, askatasuna kentzeko zigorrak betetzen ari diren bigarren mailara bitarteko odolkidetasuneko senitartekoei bisita egiteko lizentzia ere emango da, horretarako behar den beste denborarako eman ere, betiere bisitak lan-ordutegitik kanpo egin ezin badira. Paragrafo honetan aipatutako baimenari esker libre hartutako denboragatik, ez da inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango. Gainera, Giza Baliabideen Zuzendaritzak horretarako xedatutakoari jarraiki, orduak bete beharra ere gerta daiteke; nolanahi ere, zerbitzuaren premiak hartuko dira kontuan.

3.5.– Era berean, karrerako funtzionarioek sei hilabeteko edo urtebeteko ordaindu gabeko baimena eskatu ahal izango dute. Baimen hori bateraezina izango da edozein jarduera ordaindurekin. Kasu horretan, ezin izango da beste eskaerarik egin lan egindako bost urte metatu arte (lizentzia amaitzen denetik aurrera kontatzen hasita).

Norberaren beharretarako eta ordaindu gabeko lizentzia hori emateko (bere modalitate guztietan), zerbitzuaren beharrak hartuko dira kontuan. Ezesteko ebazpena hartuz gero, arrazoitu egin beharko da.

4.– Praktiketako funtzionario izendatzeko lizentzia:

Hautespen-probak gainditu ondoren praktiketako funtzionario izendatzen dituzten eta Justizia Administrazioan funtzionario gisa lan ordaindua egiten duten pertsonek aparteko lizentzia bat eskatzeko eskubidea izango dute egoera horrek dirauen denborarako, eta indarrean dagoen araudiak praktiketako funtzionarioentzat ezarritako ordainsariak jasoko dituzte.

5.– Gaixotasun edo istripuagatiko lizentziak:

Funtzioak normal betetzea eragozten duen gaixotasunak edo istripuak gaixotasunagatiko lizentzia eskatzeko eskubidea sortuko du.

Funtzionarioek, beren funtzioak normal betetzea eragozten dien gaixotasun edo istripuaren kasuan, gertatzen den egunean bertan bulego edo zerbitzu judizial bakoitzeko arduradunari lanera joateko ezintasuna jakinarazteaz gain, adierazitako gaixotasuna lanera joan gabeko lehen egunetik abalatuko duen baja medikoa aurkeztu beharko diote Giza Baliabideen Zuzendaritzari, Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren edo Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendariaren bitartez.

3.2.– En los casos en que el permiso se solicite para la realización de estudios oficiales, se podrán conceder hasta cuatro meses continuados por una sola vez y con una periodicidad anual.

3.3.– En el supuesto de que la licencia se solicite para la realización de una misión en países en vías de desarrollo, al amparo de Organizaciones no gubernamentales de desarrollo, su duración acumulada no podrá exceder de un año cada cinco años, siendo el periodo mínimo de disfrute tres meses.

3.4.– Asimismo se concederá licencia para visitar a parientes hasta 2.º grado de consanguinidad, que estuvieran cumpliendo penas privativas de libertad, por el tiempo que resulte necesario para ello, siempre y cuando las visitas no puedan efectuarse fuera del horario de trabajo. El tiempo disfrutado en virtud del permiso contemplado en este apartado, no dará derecho a retribución alguna, pudiendo ser objeto de la recuperación horaria correspondiente, conforme a lo que al efecto se disponga por la Dirección de Recursos Humanos, atendiendo a las necesidades del servicio.

3.5.– Asimismo, el personal funcionario de carrera podrá solicitar un permiso no retribuido por seis meses o un año. La concesión de este permiso será incompatible con cualquier actividad remunerada. En este caso, no cabrá nueva solicitud hasta haberse acumulado cinco años de servicios efectivos desde la finalización de su disfrute.

La concesión de esta licencia por asuntos propios sin derecho a retribución, en sus diferentes modalidades, estará subordinada a las necesidades del servicio. En caso de resolución denegatoria, ésta deberá ser motivada.

4.– Licencia por ser nombrado funcionario en prácticas:

Quienes, tras la superación de las correspondientes pruebas selectivas hubiesen sido nombrados funcionarios en prácticas y ya estuviesen prestando servicios remunerados en la Administración de Justicia como funcionarios, tendrán derecho a una licencia extraordinaria durante el tiempo que se prolongue dicha situación y percibirán las retribuciones que para los funcionarios en prácticas establezca la normativa vigente.

5.– Licencias por enfermedad o accidente:

La enfermedad o accidente que impida el normal desempeño de las funciones, darán lugar a licencias por enfermedad.

Los funcionarios/as, en los supuestos de enfermedad o accidente que les incapacite para el normal desarrollo de sus funciones, además de comunicar la ausencia en el mismo día que se produzca al responsable de cada oficina o servicio judicial, deberán presentar la baja médica correspondiente, que avale la enfermedad referida al primer día en que se produjo la ausencia del puesto de trabajo a la Dirección de Recursos Humanos a través del responsable de la oficina judicial, Fiscal Jefe, Director o Subdirector del Instituto Vasco de Medicina Legal correspondiente.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aparte utzi gabe, altako parterik ez badago gaixotasunagatiko lizentzia eskatu beharko zaio Giza Baliabideen Zuzendaritzari, lanera joan gabeko egunetik kontatzen hasita laugarren egunean eskatu ere.

Hasierako lizentzia hasierako bajako partearen egunetik (lanera joan gabeko lehen egunetik) emango da, medikuak sendatzeko aurreikusten duen denborarako, baina 15 egunerako gehienez. Gaixotasun-egoerak bere horretan jarraituz gero, hasierako lizentzia automatikoki luzatuko da baja berresteko partea aurkeztu ondoren, eta ondoriorik gabe geratuko da aurretik gaixoa sendatzen bada.

Gaixotasunaren egiazkotasuna eta lanera joateko ezintasuna egiaztatuko dituen ziurtagiri medikoa edo bajako partea aurkeztu ondoren emango dira lizentzia eta luzapenak.

Prozesu patologiko beraren ondoriozko gaixotasunagatiko lizentziak 12 hilabeterako emango dira gehienez, eta beste sei hilabetetan luzatu ahal izango dira, hilabete horien barruan langilea senda daitekeela eta alta medikoa jaso dezakeela uste denean. Epe horiek igaro ondoren, ezintasun iraunkorraren ondoriozko erretiroa edo alta medikoa eman arte luzatuko dira lizentziak (baina, gehienez ere, 30 hilabetetan, hasierako lizentzia eskatzen den egunetik aurrera kontatzen hasita).

Ondorio horietarako, gaixotasunagatiko lizentzia berria izango da prozesu patologikoa ezberdina denean eta, nolanahi ere, lizentziak gutxienez urtebetez eten direnean.

Gaixotasunagatiko lizentziekin eskubide ekonomiko guztiak mantenduko dira lehen 6 hilabeteetan, hasierako lizentzia eskatzen den egunetik aurrera kontatzen hasita, betiere lizentziak prozesu patologiko beraren ondoriozkoak badira, eta segidan edo hilabete batera bitarteko etenaldi batekin hartzen badira.

Nolanahi ere, lizentzia emateko arrazoiek jarraitzen dutela egiaztatzeko prozesuaren berrikuspena baino ezin izango dio eskatu Giza Baliabideen Zuzendaritzak ikuskatzailetza medikoari.

XEDAPEN KOMUNA: UKATZEA, ETETEA ETA BALIOGABETZEA

1.– Giza Baliabideen Zuzendaritzak, baimen eta lizentzia guztiak ukatu ahal izango ditu, lortutako datuen bidez lizentzia eta baimen horien beharra behar bezala justifikatuta geratzen bada (justifikazioa aginduzkoa denean).

2.– Behar bezala arrazoitutako aparteko zirkunstantziek eskatzen dutenean, lizentziak edo baimenak eten edo baliogabetu ahal izango dira, gaixotasunagatik, amatasunagatik eta adopzioagatik emandako lizentziak

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, si no existiera parte de alta deberán solicitar de la Dirección de Recursos Humanos, licencia por enfermedad en el cuarto día consecutivo a aquel en que se produjo la ausencia del puesto de trabajo.

La licencia inicial se concederá desde la fecha del parte de baja inicial y referida al primer día de ausencia del trabajo, por el tiempo que el facultativo haya considerado como previsible para la curación y, en ningún caso, por periodo superior a 15 días. Si el estado de enfermedad persistiera, la licencia inicial se prorrogará automáticamente presentado el parte de confirmación de baja, quedando sin efecto si con anterioridad se produce la curación.

Tanto la licencia como las prórrogas se concederán, previa presentación del parte de baja o certificación médica que acredite la certeza de la enfermedad y la imposibilidad de asistir al trabajo.

Se concederán licencias por enfermedad derivadas de un mismo proceso patológico, hasta un máximo de 12 meses prorrogables por otros seis, cuando se presuma que durante ellos pueda el trabajador ser dado de alta médica por curación. Transcurridos dichos plazos, se prorrogarán las licencias hasta el momento de la declaración de la jubilación por incapacidad permanente o de la alta médica sin que, en ningún caso, puedan exceder de 30 meses desde la fecha de la solicitud de la licencia inicial.

A estos efectos, se entenderá que existe nueva licencia por enfermedad cuando el proceso patológico sea diferente y, en todo caso, cuando las licencias se hayan interrumpido durante un mínimo de un año.

Las licencias por enfermedad darán lugar a plenitud de derechos económicos durante los 6 primeros meses desde la fecha en que se solicitó la licencia inicial, siempre que las mismas se deriven del mismo proceso patológico y de forma continuada o con una interrupción de hasta un mes.

En cualquier caso, la Dirección de Recursos Humanos, podrá solicitar únicamente de la correspondiente inspección médica, la revisión de un proceso para determinar que las causas que originaron la concesión de la licencia continúan subsistiendo.

DISPOSICIÓN COMÚN: DENEGACIÓN, SUSPENSIÓN Y REVOCACIÓN

1.– Todos los permisos y licencias podrán ser denegados por la Dirección de Recursos Humanos, si de los datos que hubieren obtenido no quedare suficientemente justificada la necesidad de utilizarlos, cuando su justificación sea preceptiva.

2.– Cuando circunstancias excepcionales debidamente motivadas lo impongan, podrá suspenderse o revocarse el disfrute de las licencias o permisos, con excepción de las licencias concedidas por motivos de enfer-

izan ezik. Kasu horretan, lantokira berehala itzultzeko agindua emango zaie lizentziak edo baimenak hartu dituzten funtzionarioei.

Indarraldia.– Ebazpen hau, Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urtarrilaren 10a.

Giza Baliabideen zuzendaria,
JULIAN ASURMENDI BARRIO.

medad, maternidad y adopción ordenándose a los funcionarios que los hubieran iniciado la incorporación inmediata a sus centros de trabajo.

Vigencia.– La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de enero de 2005.

EL Director de Recursos Humanos,
JULIAN ASURMENDI BARRIO.

LIZENTZIEN ETA BAIMENEN ESKABIDEA

IZENA ETA DEITURAK: ..............................................................................
NAN: ..............................................................................
ORGANOA: ..............................................................................
ESKATZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUEN GERTAKARIA-DATA: ..............................................................................
HASIERA-DATA:.................................................................... AMAIERA-DATA: ..............................................................................
EGUNAK, GUZTIRA:....................................................................

Kontsulta medikoen, nahitaezko betebeharren edo azken azterketen kasuan:
HASIERA-ORDUA: ..................................................................AURREIKUSITAKO IRAUPENA: ......................................................................

ARRAZOIA:

LIZENTZIAREN EDO BAIMENAREN KODEA

Kodea

| | |
|---|---|
| | |

1

| ESKATZAILEAREN SINADURA | BULEGO JUDIZIALEKO ARDURADUNAREN, FISKALBURUAREN, AMEE-KO ZUZENDARIAREN EDO ZUZENDARIORDEAREN ONTZAT EMANA |
|---|---|
| | |

(1) Eskabidearekin batera, eta ahal den guztietan, lizentzia edo baimena eskatzeko arrazoia den zirkunstantzia egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztuko da. Osterantzean, aurrerago aurkeztu beharko da.

| KODEA | IZENA |
|---|---|
| 1 | Baimenak |
| 1-1 | Norberaren beharretarako baimena |
| 1-11 | Norberaren beharrak |
| 1-2 | Semearen edo alabaren jaiotza, harrera edo adopzioagatiko baimena |
| 1-21 | Jaiotza |
| 1-22 | Harrera |
| 1-23 | Adopzioa |
| 1-24 | Arazoak amaren edo umearen koadro klinikoan |
| 1-25 | Erditzea 150 km-tik gorako distantzian |
| 1-3 | Senitarteko baten heriotza, istripu edo gaixotasun larriagatiko baimena |
| 1-31 | Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen, edo semearen edo alabaren heriotza |
| 1-32 | 2. Mailara bitarteko senitartekoen heriotza |
| 1-33 | 2. Mailara bitarteko senitarteko baten gaixotasun larria |
| 1-331 | Gaixotasunagatiko baimenaren luzapena (30 egun igaro ondoren) |
| 1-34 | Gaixotasunagatiko baimenaren luzapena (bizilekutik 150 km-tik gorako distantzian egonez gero) |
| 1-4 | Bizilekuz aldatzeagatiko baimena |
| 1-41 | Bizileku-aldaketa |
| 1-5 | Funtzio sindikalak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimena |
| 1-51 | Funtzio sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak |
| 1-6 | Azterketak egiteko baimena |
| 1-61 | Zentro ofizialetako azterketak |
| 1-7 | Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egiteko baimena |
| 1-71 | 4 ordutik beherako kontsulta medikoa |
| 1-72 | Erditzeko prestaketa |
| 1-73 | 4 ordutik gorako kontsulta medikoa |
| 1-74 | 2. Mailara bitarteko senitartekoei laguntzea |
| 1-8 | Erditze, adopzio, harrera eta edoskitzeagatiko baimena |
| 1-81 | Erditzea |
| 1-82 | Adopzioa edo harrera |
| 1-83 | Erditze/adopzio/harreragatiko baimena lanaldi partzialean |
| 1-84 | Edoskitzeagatiko ordubeteko etenaldia egunean |
| 1-85 | Edoskitze-orduen metaketa |
| 1-9 | Nahitaezko betebeharra egiteko baimena |
| 1-91 | Epaitegia-NAN-pasaportea |
| 1-92 | Senitarteko minusbaliatuei laguntzea |
| 1-93 | Gidabaimena eskuratzeko edo eraberritzeko azterketa |
| 1-94 | Notario-izapideak |
| 1-95 | Erakunde ofizialetan egin beharreko izapideak |
| 1-96 | Gobernu-organoen bilerak |
| 1-10 | Lanaldia murrizteko baimena |
| 1-101 | Legezko zaintza |
| 1-102 | Aurretiko erretiroaren ondorioz |
| 1-103 | Funtzionarioak osatzeko duen beharraren ondorioz |
| 1-104 | Norberaren interesagatik |
| 1-11 | Hautapenezko karguari dagozkion funtzioak betetzeko baimena |
| 1-111 | Hautapenezko kargua |

| KODEA | IZENA |
|---|---|
| 1-12 | Gaixorik dauden senitartekoak zaintzeko baimena |
| 1-121 | 2. Mailara bitarteko senitarteko baten zaintza |
| 2 | Lizentziak |
| 2-1 | Norberaren edo senitartekoen ezkontzagatiko lizentzia |
| 2-11 | Norberaren ezkontza edo bizikidetza egonkorra |
| 2-12 | Senitartekoen ezkontza |
| 2-121 | Senitartekoen ezkontzagatiko lizentziaren luzapena (bizilekutik 150 km-tik gorako distantzian egiten bada) |
| 2-2 | Prestakuntza-ikastaroak egiteko lizentzia |
| 2-21 | Sailaren prestakuntza-ikastaroak |
| 2-22 | Ikastaro, kongresu edo jardunaldietara joatea |
| 2-3 | Norberaren beharretarako lizentzia |
| 2-31 | Norberaren beharrak (ordainsaririk gabe) |
| 2-32 | Ikasketa ofizialak |
| 2-33 | Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egitea |
| 2-34 | Askatasuna kentzeko zigorrak betetzen ari diren senitartekoei bisita egitea |
| 2-35 | 6 hilabeteko edo urtebeteko baimena (karrerako funtzionarioak) |
| 2-4 | Praktiketako funtzionario izendatzeko lizentzia |
| 2-41 | Praktiketako funtzionario izendatzea |
| 2-5 | Gaixotasun edo istripuagatiko lizentziak |
| 2-51 | Gaixotasuna edo istripua |

*SOLICITUD DE LICENCIAS Y PERMISOS*

*NOMBRE Y APELLIDOS:* ..........................................................................................
*DNI:* ..........................................................................................
*ÓRGANO:* ..........................................................................................
*FECHA HECHO CAUSANTE:* ..........................................................................................
*FECHA DE INICIO:*........................................................................ *FECHA FIN:* ..........................................................................................
*TOTAL DÍAS:* ..................................................................................

*En el caso de consultas médicas, cumplimiento de deberes inexcusables o realización de exámenes finales:*
*HORA DE INICIO:* ........................................................*DURACIÓN PREVISTA:* ..........................................................................................

*MOTIVO:*

*CÓDIGO DE LICENCIA O PERMISO*

*Código*

| | |
|---|---|
| | |

*1*

| *FIRMA DEL / DE LA SOLICITANTE* | *V.º B.º RESPONSABLE OFICINA JUDICIAL, FISCAL-JEFE, DIRECTOR O SUBDIRECTOR DEL IVML* |
|---|---|
| | |

*(1) Junto con la solicitud, y siempre que sea posible, se acompañará justificante que acredite la circunstancia para la que se solicita la licencia o permiso. En caso contrario se deberá presentar a posteriori.*

| *CÓDIGO* | *DENOMINACIÓN* |
|---|---|
| *1* | *Permisos* |
| *1-1* | *Permiso por asuntos particulares* |
| *1-11* | *Asuntos particulares* |
| *1-2* | *Permiso por nacimiento, acogimiento, adopción de hijo/a* |
| *1-21* | *Nacimiento* |
| *1-22* | *Acogimiento* |
| *1-23* | *Adopción* |
| *1-24* | *Complicaciones en el cuadro clínico de la madre o del hijo/a* |
| *1-25* | *El alumbramiento tiene lugar a más de 150 km.* |
| *1-3* | *Permiso por fallecimiento, accidente o enfermedad grave de familiar* |
| *1-31* | *Enfermedad grave o fallecimiento de cónyuge, pareja de hecho o hijo/a* |
| *1-32* | *Fallecimiento de familiares hasta 2.º grado* |
| *1-33* | *Enfermedad grave de familiar hasta 2.º grado* |
| *1-331* | *Ampliación permiso de enfermedad (pasados 30 días)* |
| *1-34* | *Ampliación permiso de enfermedad (>150 km del lugar de residencia)* |
| *1-4* | *Permiso por traslado de domicilio* |
| *1-41* | *Traslado de domicilio* |
| *1-5* | *Permiso para funciones sindicales o de representación del personal* |
| *1-51* | *Ejercicio de funciones sindicales, de formación sindical o representación del personal* |
| *1-6* | *Permiso para exámenes* |
| *1-61* | *Exámenes en centros oficiales* |
| *1-7* | *Permiso para consultas , tratamientos o exploraciones médicas* |
| *1-71* | *Consulta medica < 4 horas* |
| *1-72* | *Preparación al parto* |
| *1-73* | *Consulta medica > 4 horas* |
| *1-74* | *Acompañamiento a familiares hasta 2.º grado* |
| *1-8* | *Permiso por parto, adopción, acogimiento y lactancia* |
| *1-81* | *Parto* |
| *1-82* | *Adopción o acogimiento* |
| *1-83* | *Disfrute del permiso de parto/adopción/acogimiento a tiempo parcial* |
| *1-84* | *Pausa de una hora diaria por lactancia* |
| *1-85* | *Acumulación de horas de lactancia* |
| *1-9* | *Cumplimiento de deber inexcusable* |
| *1-91* | *Juzgado-DNI-pasaporte* |
| *1-92* | *Acompañamiento familiar minusválido* |
| *1-93* | *Examen o renovación carnet de conducir* |
| *1-94* | *Trámites notariales* |
| *1-95* | *Trámites organismos oficiales* |
| *1-96* | *Reuniones de órganos de gobierno* |
| *1-10* | *Permiso de reducción de jornada* |
| *1-101* | *Guarda legal* |
| *1-102* | *Por prejubilación* |
| *1-103* | *Por necesidad de recuperación del funcionario* |
| *1-104* | *Por interés particular* |
| *1-11* | *Permiso para atender a funciones derivadas de cargo electivo* |
| *1-111* | *Cargo electivo* |

| *CÓDIGO* | *DENOMINACIÓN* |
|---|---|
| *1-12* | *Permiso para atender a familiares con enfermedad* |
| *1-121* | *Cuidado de familiar hasta 2.º grado* |
| *2* | *Licencias* |
| *2-1* | *Licencia por matrimonio propio o de parientes* |
| *2-11* | *Matrimonio propio o convivencia estable* |
| *2-12* | *Matrimonio de parientes* |
| *2-121* | *Ampliación matrimonio de parientes (>150 km del lugar de residencia)* |
| *2-2* | *Licencia para realización de cursos de formación* |
| *2-21* | *Cursos de formación del Departamento* |
| *2-22* | *Asistencia a cursos, congresos o jornadas* |
| *2-3* | *Licencia por asuntos propios* |
| *2-31* | *Asuntos propios (sin retribución)* |
| *2-32* | *Realización de estudios oficiales* |
| *2-33* | *Realización de misión en países en vías de desarrollo* |
| *2-34* | *Visita a parientes privados de libertad* |
| *2-35* | *Permiso de 6 meses o 1 año (personal funcionario de carrera)* |
| *2-4* | *Licencia por ser nombrado funcionario en prácticas* |
| *2-41* | *Nombramiento de funcionario en prácticas* |
| *2-5* | *Licencias por enfermedad o accidente* |
| *2-51* | *Enfermedad o accidente* |